

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko martxoaren 20a. IX. urtea. 2.379. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Herrira Eguna antolatu dute presoekiko elkartasuna zabaltzeko

Tolosako Herrirak egun osoko egitaraua prestatu du larunbaterako; eguerdian manifestazioa egingo dute Trianguloatik

Ekimeneko kideek lau talde osatu dituzte, harremanak, elkartasuna, bisitak eta komunikazioa bezalako gaiak lantzeko 06

**Zero zabor politikaren inguruko hitzaldia, etzi, Villabonan**

Gurean da, 19:00etan, Villabonako eta Zizurkilgo udalek antolatuta 06



Apirilaren 18an bilera irekia egingo dute 18:30ean, Antonio Maria Labaien kultur etxean. I.G.L.

## Tolosako saltokiak kalera aterako dira eskaintza bereziekin larunbateko Braderie azokan

Ehun denda inguruk hartuko dute parte ekimenean, iaz baino askoz gehiago; erdigunean ez dauden saltokientzako karpa bat jarriko dute San Frantzisko etorbidean 02

## Berria pilota txapelketako irabazlea eskualdekoa izango da

Finala Hernanin jokatuko dute, larunbatean, Zazpi Iturrik eta Aurrera Saiazek; bi elkarreentako arduradunek norgehiagoka parekatua eta gogorra izango dela uste dute 07

## Villabonako merkatariek Parisera joateko aukera emango diete herritarrei

Udaberriko kanpaina hasiko dute bihar; dendetan 2.000 txartel banatuko dituzte bezeroen artean, eta maiatzaren 15ean egingo dute bidaiaren zozketa, Berdura plazan 06



Oria elkarteko arduradunak udaberriko kanpainen berri ematen. R.C.

## EH Sozialistak greba orokorrean parte hartzeko deia egin du

Espainiako lan erreforma «langile klasearen eskubideen aurka egindako eraso handiena» dela dio taldeak; sindikatu guztiak elkartu izana oso positiboa dela nabarmendu du 06



HITZAK harpidedunentzat 2 sarrera pare ditu

### Antzezlan

Martxoak 23 • Ostirala 20:30ean Tolosako Leidorren



harpidedun TXOKA hitza

HITZAK harpidedunentzat sarrera pare du

### Kontzertua Patxi Saiz

Martxoak 24 • Larunbata 18:30ean Tolosako Topic-en



Zozketan parte hartzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira

HITZAK harpidedunentzat sarrera pare du



### LAGUN ARO GBC Real Madrid

saskibaloitako partida

Martxoak 25 • Igandea 18:00etan Donostiako Ilunben



sarrerak



Tolosa&Co merkatarik elkarteko arduradunak eta kideak aurkezpenen. I.G.L.

## Saltokiak kalera aterako dira larunbatean, Braderie azokaren barruan

Inoiz baino parte hartze handiagoa izango da ekimenean: 100 saltoki baino gehiago izango dira kalean

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Tolosa&Co merkatarien elkarteak Braderie 2012 ekimena antolatu du larunbaterako, hilak 24, Tolosan. Kalitatezko produktuak prezio oso baxuetan erosteko aukera izango dela azaldu dute merkatariek. Dendak kalera atera eta kanpoaldean jarriko dituzte salgai euren produktuak, 10:00etatik 20:30era.

Guztira 100 saltokik eta 22 tabernekin parte hartuko dute. Hain justu, denda batean zerbait erosiz gero, txartel bat emango dute eta

horrekin 22 tabernetan pintxoia erosi ahal izango da euro baten truke. Tolosa&Co elkarteak gustura azaldu dira aurrean iaz baino saltoki askoz gehiagok parte hartuko dutelako; 55etik 100era pasatu dira. Aipatu behar da, era beran, aurrean produktu berriak ere egongo direla salgai: lanerako arropa, jostailuak, altzariak, prestatutako jakiak...

Horrez gain, merkatariek bereziki poztu dira tabernekin eman duten erantzunarekin, eta agerraldian tabernariaren ordezkari bat izatea nabarmendu dute. «Gure helburua da elkartearen dendeak, tabernekin eta zerbitzuak bat egitea», esan du Tolosa&Co-ko Fermin Montilla lehendakariak.

### Berrietasunak

Aurrean hainbat berrietasun izango dira ekimenean. Alde batetik,

Tolosako erdialdean ez dauden saltokientzako karpak batzuk jarriko dituzte San Frantzisko etorbidean, artxiboaren aurrean, beraien produktuak salgai jartzeko. Horrez gain, ondoan beste karpak batzuk izango dira, Tolosa&Co Visa txartela egin ahal izateko, eta eguna girotzeko, elkarrizketa eta musikaren bitartez.

Beste berrietasun bat ludoteka izango da. Kultur etxean jarriko da, 17:00etatik 20:30era, eta 3 urte-tik 10 urte ingurura arteko haurrentzat izango da. «Haur bakoitzeko euro bat ordaindu beharko da», esan dute elkarteak. «Zerkausiko leku bat ere atonduko dugu, hurrekin ekintzak egin ahal izateko», gaineratu dute Tolosa&Co-ko arduradunek.

Bukatzeko dende beren produktuak non jarri dituzten jakiteko mapak banatuko dituzte Renfe eta autobus geltokietako inguruetan.

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Zaldibian etxebizitza berri martxan. 169.500 eurotik aurrera, garajea eta trastelekua barne. Interesatuak, deitu 669 82 70 96 telefono zenbakira.

## Parisera joateko aukera, Oria merkatarien eskutik

Villabonako elkarteak bihar abiaraziko du udaberriko kanpaina, urtaro aldaketarekin batera

**Rebeka Calvo** Villabona

Villabonako Oria merkatarien elkarteak udaberriko kanpaina antolatu du. Bihar hasiko dute *Eros ezak/n hemen eta joan hadi Parisera* lelopean, eta funtsean Villabonako erosleen artean Parisera joateko bidaia zozketan datza kanpaina.

Guztira 2.000 txartel banatuko dituzte Oria elkarteak saltokietan. «Kide diren dendetan kanpainaren kartelak jarriko ditugu, eta horietan txartelak banatuko dituzte bezeroen artean», azaldu du Consuelo Gomez-Arevalillok, merkatarien elkartearen lehendakariordeak. Saltoki bakoitzak erabakiko du txartelak nola banatu, «nahiz eta zentzukoena erosketa kontutan hartzea izango litzatekeen», gaineratu du Oria merkatarik elkarteko lehendakariak.

Irabazlearen izena maiatzaren 15ean, eguerdian, Berdura plazan

eginago duten zozketan aterako da, eta Parisera joateko bi pertsonentzako bidaia irabaziko du.

Agus Aduriz Tolosaldea Garatzen garapen agentziako arduradunak, bere aldetik, Villabonako merkataritza sendoa dagoela nabarmendu du. Herrian 81 saltoki daudela esan du, eta ia %60a Oriako bazkide direla argitu du. «Herriko merkatarik guztiei Oria merkatarik elkarteko bazkide izateko gonbita egiten diegu. Oso erraza da; Kale Nagusiko Tinta inprimategira edo Bronte optikara joan eta informazio emango diegu», gaineratu du Consuelo Gomez-Arevalillok.

### Diru laguntzak

Adurizek, bestalde, Eusko Jaurlaritzak saltokiak edo ekipemenduetan berritzeko diru laguntzen programa abian dagoela esan du. «Txikizkako merkatarientzat da diru laguntza hau, eta eskaerak hilaren 19tik ekainaren 30a arte egin daitezke, aurrekontua bukatzen ez den bitartean», azaldu du.

Informazio gehiago [www.tolosaldeaagaratzen.net](http://www.tolosaldeaagaratzen.net) webgunean eskuratu daiteke eta hilaren 30ean diru laguntzen berri emango dute Tolosaldeko kultur etxean, 13:30etik aurrera.



Agus Aduriz, Consuelo Gomez-Arevalillo eta Kitilo Fernandez. I.G.L.

## Roberto Ruiz sukaldariak Euskadi saria irabazi du

**R. Calvo** Tolosa

Tolosako Fronton jatetxeko Roberto Ruiz sukaldariak jaso du Eusko Jaurlaritzak banatzen dituen Euskadi gastronomia sariko sukaldari onenaren izendapena.

Ruizekin batera, Arzak jatetxeko Kontxi Beobidek areto zuzendaria onenaren saria irabazi du; *Diario de Gastronomía* egunkari digitalak kazetaritza lan onenaren izendapena; eta Ramon Mora-

toren *Chocolate* da gastronomia argitalpen onena.

Era berean, Gastronomiaren Euskal Akademiak ere banatu ditu sariak.

Lesakako Kasino jatetxeko Josefina Sagardiak jaso du Jose Maria Busca Isusa saria; Rekondo jatetxeko Txomin Rekondok Manuel Llanno Gorostiza izendapena, eta Basque Culinary Centerreko Gastronomiaren Euskal Akademiako sari berezia.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Zure ziztada behar dugu →



Berria Taldeko eta Hitzako Tolosaldeko langileek kanpainarekin bat egin dute, herritarrei laguntza eskatuz. HITZA

# Berria Taldea, ziztada eske

Salmenta eta publizitate jaitsierak egoera zailean jarri dute Berria Taldea; herritarren sostengua beharrezkoa du

Orain artekoari eutsi eta proiektu berriak garatzeko, 5.000 lagunengatik behar dira

## Erredakzioa

Euskarazko komunikabideen sarea osatu eta haiek etorkizunera begira jartzeko erabakiak hartu eta ahalegin betean dabil Berria Taldea. Inoiz baino irakurle gehiago dituen arren, nabarmen behera egiten ari dira *Berriaren* diru sarrerak.

Hedabideak sakon aldatzen ari dira. Egunkariaren salmenta jaisten ari diren arren, *Berria* ez da hainbestekoa izan, harpidedunen leialtasunari esker. Publizitateari dagokionez, fakturazioa asko jaitsi da azken urteetan, %30 galduz.

Egoerarik zailenean ere, pape-reko eskaintza osatu (lurraldeko *Hitza* astekariak) eta Interneten eskaintza aberastu du *Berria*, horrek sareko irakurlearen gorakada nabarmen eraginez.

*Berriak* argi du edukien lanke-tari lotutako negozio eredu berriak sortu behar dituela, eta horretan ari dira, jendearen interesek eta bidegarritasunak topo egingo duten informazio eskaintza lantzen. Baina salmenten eta publizitatearen jaitsierak oso egoera zailean jarri dute Berria Taldea; orain arteko bidea ez da nahikoa eusteko. 2003an 24.000 la-

gunek egin zuten diru ekarpenak ekarri zuten Berria Taldea eta *Berria* egunkaria sortzea. Aurrera begira ere, herritarren sostengua eta bultzada behar dira orain artekoari eutsi eta proiektu berriak garatu ahal izateko. Horretarako 5.000 lagunengatik ziztada beharrezkoa da.

## Berria Komunitatea

Ziztadak egiteko prest dauden Berrialagunak behar dira, beraz, eta modu horretara Berria Komunitateko kide izango dira, Berrialaguna txartela eskuratzuz. Besteak beste, Berrialaguna denak Berria Taldearen jarduerara eta erabaki nagusien informazio osoa jasoko du: batzarra egingo da urtean behin Berrialagunekin eta informazio buletinak bidaliko zaizkie. Horrez gain, doan jasoko du *Berria* PDF formatuan. Bestalde, deskontuak izango ditu Berria Taldearen produktuetan, eta horien berri izateko Berrialagunen katalogoa jasoko dute.

Ez da nahastu behar *Berriaren* harpideduna eta Berrialaguna. Harpidedunak etxean edo hurbileneko kioskoan jasotzen du egunero egunkaria. Urteotan, harpidedunei esker eutsi die hein handi batean bere salmentei *Berriak*, eta horien ekarpenak berebiziko garrantzia du proiektuak iraundera.

Berrialaguna Berria Taldearen proiektuak sostengatzen dituen komunitatea indartzeko sortu den figura da. Bere ekarpena egitearen truke, goian aipatutako abantailak izango ditu, besteak beste. Baina ez du jasoko *Berria* bere etxean harpidedunek bezala. Horretarako, *Berriaren* harpidedun egiteko aukera dago [www.berria.info/harpidetza](http://www.berria.info/harpidetza) webgunean edo 943 30 43 45 telefono zenbakira deituz.

Tolosaldean, Berria Taldearen kanpaina zabaltzeko eta Berrialagunak lortzeko, bilera irekia egingo da hilaren 27an, 19:30ean, Tolosaldeko kultur etxean.

## ↓ Egin ziztada

### EKARPEN MOTAK

- Urtean 100 euro, aldi bakarrean edo lautan ordaintzeko aukeraz.
- Urtean 200 euro, aldi bakarrean edo lautan ordaintzeko aukeraz.
- Hilean 10 euro.
- Urtean beste edozein kopuru, aldi bakarrean edo lautan ordaintzeko aukeraz.

### EKARPENA EGITEKO BIDEAK

- Telefonoz, 943 304 345 zenbakira deitu eta datuak emanez.
- Interneten, [www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna) webgunean agertzen den formularioa betez.
- Posta elektronikoz, [laguna@berria.info](mailto:laguna@berria.info) helbidera idatziz, dohaintza egiteko orriko datu guztiak emanda.
- Postaz, [www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna) dohaintza orrian eskatzen diren datu guztiak betez, edo eskuorria bete eta ondorengo helbide honetara idatziz: BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 Andoain.
- [www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna) webgunean har daitekeen eskuorria bete eta Berriara eramanez.

### Historia pixka bat

Historia labur baina emankorra du Berria Taldea. *Berria* egunkariaren lehen alea 2003ko ekainaren 21ean argitaratu zen, *Egunkaria* itxi eta lau hilabetera. *Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA* ere 2003an hasi zen argitaratzen, eta beste bost eskualdeetan ere euskarazko egunkaria irakurri daiteke. Lurraldeko *Hitzak*, tartean *Gipuzkoako Hitza*, 2010ean hasi zen argitaratzen.

Besteak beste, Berria Taldeak eskualdez eskualde euskarazko telebistak sustatzeko Hamaika izeneko enpresa sortu du beste bazkide batzuekin batera, eta *Nora* bidaia eta aisialdi aldizkaria argitaratzen du *Euskal Herria* aldizkariarekin elkarlanean.



# zure ziztada behar dugu

Izan zaituz  
**berrialaguna**

Berrialaguna ekimena Tolosaldean sustatzen laguntzeko prest bazaude,  
**martxoaren 27an, asteartea, 19:30ean Tolosaldeko kultur etxean**  
 egingo dugun bilerara gonbidatzen zaitugu. Bilerara etorriko bazara, aurretik deitu  
 687 530258 telefono zenbakira edo bidali mezu elektronikoa  
[tolosaldea@berrialaguna.tk](mailto:tolosaldea@berrialaguna.tk) helbidera.

Informazio eguneratua eta euskarri gehiago:  
[www.berria.info/berrialaguna](http://www.berria.info/berrialaguna)





# EH Sozialistaren ustez, lan erreforma «eraso handia» da

Martxoaren 29rako sindikatu guztiek greba deitza «oso positiboa» dela azpimarratu dute agerraldian

**I. Urkizu** Tolosa

Espainiako lan erreforma Frantziako garaiaren amaieraz geroztik, «langile klasearen eskubideen aurka egindako eraso handiena» dela azaldu zuen pasa den ostiralean, Euskal Herria Sozialistak: «Burgesiak ez du inolako asmorik langile klasearen aurka erasoaldia leuntzeko. Erreforma honekin, langileak inolako babesik gabe geratuko dira, eta horrela errazagoa izango da enpresetan beldurra sartzea», nabarmendu zuen bozeramaleak. Bide beretik, Espainiako Gobernuak onartu berri duen erreformaren helburua, «enpresari handiek krisiaren erdian negozio handia egiten jarraitzea» dela sa-

latu du Euskal Herria Sozialistak.

Egoera honen aurrean, «langile familien eskubideen aurkako erasoaldiak erantzuna izatea» beharrezkotzat jo zuten agerraldian. Jomuga hau aurrera eramateko bidean, ELA, LAB, CCOO, UGT eta CIG sindikatuek greba orokorra egun bererako deitza «oso positiboa» izan dela azpimarratu du taldeak: «Ekintza batasuna, langileen gehiengoaren erakartzen duena, oinarritzeko arma da elkartuta dagoen etsaiari aurre egiteko».

Azkenik, kapitalismoa gizakia-erentzat «mehatxua» dela aldarrikatu zuen EH Sozialistak, sistemak, «Europar ere XIX. mendeko lan eta bizi baldintzetara itzularaztea» nahi duela gaitzetsiz.

Lan erreformaren nahiz murrizketen aurkako aldarriekin amaitu zuten agerraldia, datorren martxoaren 29ko greba orokorrerako deia eginez.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

# Informazio saioak, atez ateko hondakin bilketa azaltzeko

Villabonako eta Zizurkilgo alkateek zero zabor politikaren alde egingo dutela azaldu dute

**Eneritz Maiz** Amasa-Villabona

Zizurkilgo eta Villabonako udal gobernuek, «hauteskunde programan esan bezala», zero zabor politikarekin bat egiten dutela azaldu dute Zizurkilgo Joxe Mari Luengo eta Amasa-Villabonako Galder Azkue alkateek.

Bi herriek elkarrekin lan egiteko erabakia hartu dute, izan ere, herri desberdinak izanagatik, antzeko biztanle kopurua dute, eta eremu honetan «gauzak ongi egiteko erabakia» hartu dutela azaldu zuten.

Herritarrei erabaki honen berri emateko, parte hartze eta informazio jardunaldiak antolatuko lanean ari direla nabarmendu nahi izan zuten. Bide honetan, lehenengo hitzaldia ostegun hone-



Luengo eta Azkue. E. MAIZ

tan izango da, 19:00etan, Gurea antzokian: «Eztabaidarako gurea izango da», nabarmendu zuten alkateek. Lehen saio hau gaztelainaz egingo dute, batik batik etorkinei zuzendu nahi izan baitiete: «Hondakinen gaia guztion ardura da». Apirilean, berriz, bigarren saioa antolatuko dute, euskaraz; dena den, data zehatza ez dute erabaki oraindik.

Hondakinen kudeaketaren inguruan, Europar Batasunak agindutakoa betetzeko beren esku dagoena egingo dutela azpimarratu zuten alkateek, azkenik: «Murriztu, birziklatu eta bererabili».

# Preso eta iheslariei elkartasuna adierazteko eguna antolatuko dute

Aprilaren 18rako bilera deitu dute, herritarrek lan taldeetan parte har dezaten

**Itzea Urkizu** Tolosa

Preso eta iheslarien etxeratzeari elkartasuna adierazteko helburuz, Herrira Eguna ospatuko dute larunbat honetan, martxoak 24, Tolosan. Goizetik hasiko dira jarduerak, eta besteak beste, manifestazioa, bertso bazkaria, kalejira, nahiz kontzertuak izango dira. Bazkarirako txartelak asteazkena baino lehen erosi behar dira honako tabernetan: Villabonako Iratzarren, Anoetako Itzulin, Ibarra Subegin eta Tolosako Rakun.

Agerraldian, Tolosako Herrira mugimendua «herrian hutsik dauden aulkia betetzeko» helburuz sortu dela azaldu zuten kideek. Bide horretan, helburu berekin bat egiten duten herritarrei «espazio eraginkor bat eskaintzea» doazela nabarmendu dute. Horretarako, alde batetik, beren jomugekiko alde jarrera duten herritar nahiz eragileekin lan egin nahi du Tolosako Herrirak.

Bestalde, ordea, beren helburuen aurkako iritzi edojarrera dutenenganaino ere iritsi nahi dutela azaldu dute: «Hauekin ere lan egin nahi dugu, hauen kontzientziak ukitu nahi ditugu, hauen jarrerak aldatu».



Aprilaren 18an izango da herritarrek parte hartzeko bilera. I. GARCIALANDA

Herrira mugimendua, desagertzeko helburua duela azaldu zuten Tolosako kideek: «Misio bat jarri diogu geure buruari, eta misio bakar horri lotuta lan egingo dugu». Horrela beraz, beren aurreikuspenak betetzeari, Herrirak bere lana amaitutzat emango duela nabarmendu dute.

Pasa den urtarrilaren 7an Bilbon egindako manifestazioa, preso eta iheslariak etxeratzeo lanean «erreferentzia argia» izan zela diote: «Presoen gaia eztabaida politikoaren erdigunean kokatzeko baliagarria izateaz gain, gizartearen konpromisoaren erakusleho izan da».

Egoera honen aurrean, Tolosari egokitutako antolaketa zehaztu dute Herrirako kideek: «Herri osoa bertan inplikatu, lan talde berriak sortzeko asmoa dugu, ideia guztiak mahai gainean jarri eta aurrera eginez».

Horrela beraz, harreman taldea osatuko dute hasteko; herri osoaren inplikazioa bilatu behar du lan talde honek, eta egitas-

moan ahalik eta jende gehienak parte hartzeko sare moduko bat osatzea da euren nahia.

Bigarren taldea, berriz, elkartasun taldea izango da. Hilabeteroko azken ostirala indartu nahi dute honen bidez, eta preso eta iheslarien etxeratzea aldarrikatzen duten banderolak Tolosan barrena zabaltzea ere bai.

Bisitez arduratuko da mugimenduko kideek proposatu duten hirugarren taldea: «Helburuetako bat gure herriko presoek bisitan joateko jende berria bideratzea da».

Azkenik, laugarren lan taldeak komunikazioa izango du betebeharr nagusi, internet, prentsa eta bestelako baliabideen bidez, informazioa zabaltzeko.

Egitasmoan lanerako dinamika honen bidez parte hartu nahi duten herritarrentzat, deialdia egin du Tolosako Herrira mugimendua, eta datorren apirilaren 18an, 18:30ean elkartuko dira horretarako, Antonio Maria Labaien kultur etxean.

## ↓ Herrira Eguneko egitaraua

### MARTXOAK 24, LARUNBATA

- 11:00. Banderolak erosteko aukera Trianguloa plazan.
- 12:00. Manifestazioa Trianguloa plazatik.

- 14:00. Plaza Berrian bertso bazkaria, Xumai Murua eta Odei Barroso bertsoariekin.
- 18:00. Trikitilarietako kalejira Euskal Herria plazaraino. Topic aretoan, Patxi Saizen saioa.

- 17:30. Trikipoteoa Alde Zaharrean barrena.
- 22:00. Kontzertuak Plaza Berrian, Desordutan, Glaukoma Sound System eta Laket taldeen eskutik.

## ☉ Hilberria

### ESKELAK

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



### BERNARDA GOROSTEGI ESNAL ANDREA

*Eskaia emon dautzat 'egunon amama' zelan dabil gaurkoan gure auzoko dama aurpegi zimurtua present iragana berbarik ez keinu bat zuzenduz nigana irifarre honegaz esan dozu dana*

Zure bilobak: Manex, Edume, Miren, Ekaitz, Maialen, Maddi, Ane

Tolosan, 2012ko martxoaren 20an

# Aurrera Saiazek eta Zazpi Iturrik Berria Txapelketako finala jokatu dute

Amezketako eta Bidegoiango pilotariek larunbatean jokatu dute finala, Hernanin; 16:30ean hasiko da

## Eneritz Maiz

Bidegoiango Aurrera Saiazek eta Amezketako Zazpi Iturrik jokatu dute IX. Berria Txapelketako finala. Larunbatean, 16:30etik aurrera, Hernanin jokatu dira finalako hiru partidak. Adiskideak eta Oberena taldeei irabazi ostean, eskualdeko bi pilota elkar arte iritsi dira finalera.

Xalton Zabala Zazpi Iturriko arduradunak finala parekatua izango dela uste du: «Beldurrik ez dugu, baina errespetu handia dugu». Finala lehenengo partidak baldintzatuko duelakoan dago: «Lehen partida irabaziz gero, moralak igoko litzaieke gurei». Aukerak lehen bi partidetan ikusten ditu.

Luis Galarraga Aurrera Saiazko arduradunaren ustez, amezketarrek «oso talde ona dute. Bi bikote gazteenek oso maila ona dute, eta oso gogorra izango da. Nagusien mailakoan ikusten dut partidak gure alde», dio. «Pilotariek beraien maila ematen badute, partidak onak izango dira, baina askotan finalako urduritasuak ez die behar bezala jokatzeko uzten», gaineratu du. Garbi du, «irabazi nahi badugu %100a eman beharko dugun».

Amezketarrik finalerako faboritoak ziren. Nahiz eta taldeko hiru atzelari min hartuta eduki, bikain pasa dituzte kanporaketa guztiak. Aurrera Saiazkoek ere, finalera iristea zuten helburu, eta lortu dute. Zortea lagun izan dutela ekarri du gogora Galarragak.

Txapela Tolosaldean geratu da, eta amezketarrek bigarren urtez jarraian jantzi dezakete. «Aberasgarria eta pozgarria da eskualde-



Zazpi Iturriko pilotariak, aurtan, berriz ere, txapela jantzi dezakete. HITZA

ko bi talderen artean finala jokatzeko», dio Zabalak. Galarragaren ustez, berriz, «momentu honetan, maila guztietan, Gipuzkoan dago mailarik onena, eta batik bat, Tolosaldean, oso maila polita dagoela esango nuke». Finalen giro polita izango delakoan daude.

## Hiru partidak irabazita

Ostiralean, Aurrera Saiaz taldeak Galdakaon jokatu zuen Adiskide taldeko pilotarien aurka. Luis Galarragaren ustez, «kanporaketa gogorra izatea espero genuen. Kadeteetako partida polita izan zen, eta jubenetan, gure bikoteak ez zuten mailarik eman. Hala ere, zortea alde izan genuen, eta aurkarietako bat lesionatu egin zenez puntua guretzat izan zen». Nagusien partida errazagoa izan zen, eta pilotariek «lasai» jokatu zuten.

Kadeteetan, Chiapuso donostiarrak eta Aburuza bidaniar goiaztarrek 22 eta 11 irabazi zuten. Jubenetan, Labaka albizurtarrak eta Elustondo berrobitarrak, zortea alde izan zuten. 15 eta 9 galtzen joanagatik, aurkarietako batek izan zuen lesioa zela eta, partida ezin izan zuten amaitu eta 22 eta 15 irabazi zu-

ten. Nagusien mailan, Urbieta II.a asteasuarrak eta Telletxea albizurtarrak 22 eta 19 irabazi zuten.

Igandean, Amezketako taldearen txanda izan zen Tolosako Beotibar pilotalekuan. Bertan, Zazpi Iturriko pilotariek Oberenakoek aurka neurtu behar izan zituzten indarrak. Xalton Zabalak azaldu duenez, «uste baino errazago irabazi genuen. Bi lehenengo partidak irabazteko esperantza genuen, eta aurkariak gehiago jokatu zutela uste genuen». Kadeteen mailan, Jokin Altuna amezketar-

## Finalerdiak

### AURRERA-SIAIZ

#### KADETEAK

Chiapuso-Aburuza 22

Elorriaga-Rekagorri 11

#### JUBENILAK

Labaka-Elustondo 22

Atutxa-Sainz 15

#### NAGUSIAK

Urbieta II-Telletxea 22

Elezkano II-Galarza 19

### ZAZPI ITURRI

#### KADETEAK

Altuna-Erasun 22

Espinal-Andueza 8

#### JUBENILAK

Iribarria-Tolosa 22

Juarena-Cordon 4

#### NAGUSIAK

Olaetxea-Sanchez 22

Diaz-Etxamendi 14

rrak eta Jon Erasun zizurkildarrek jokatu zuten, eta 22 eta 8 irabazi zieten. Jubenetan, Iker Iribarria aramarra eta Xabi Tolosa anoetarrek, 22 eta 4ko emaitzarekin eskuratu zuten garaipena. Nagusien partidatan, berriz, Iraitx Olaetxea lizartzarrek eta Jokin Sanchez astigarragarrek jokatu zuten, 22 eta 14 irabaziz.

## Barriolak bere esku du finalerdietarako txartela

### Erredakzioa Leitza

Bi leitzarren arteko partidaren ostean, Barriolak finalerdietara sartzeko aukerak mantentzen ditu, eta Bengoetxea VI.a kanpoan geratu da. Martinez Irujok eta Barriolak Oinatz Bengoetxearen eta Apraizen aurka irabazi egin zuten, eta ondorioz, gazteenak,

hamahiru partidetatik sei irabazita aukerarik gabe geratu dira. Barriolak, berriz, nahiz eta ziurtatu gabe eduki, beraien esku dute txartela. Larunbatean, Labriten, Berasaluze VIII-Albisuren aurkako partida irabaztea nahiko dute. Galduz gero, zain egon beharko dute Xala eta Laskorainek zer egiten duten.

## Laskorainek 5-0 galdu du Zierbena taldearen aurkako partida

Aste honetan Laskorainek Kirol Sport hirugarren sailkatua izango du aurkari, etxean

### Gorka Amatriain Tolosa

Atsedendiaz gozatu ondoren, larunbatean berriro ipini zen martxan areto futbolaren 2B maila. Azken txapelduna den Zierbena boteretsuaren etxera bisita egin ondoren, beste kolpe gogor bat hartu zuen Laskorainek. 5-0eko emaitza izan arren, arerio on baten aurrean makurtu behar izan zuten.

Horitxoak lehiakor agertu ziren neurketa osoan zehar eta bizkaitarrak estu hartzea ere lortu zuten minutu luzeetan zehar. Lehen zatia oso parekatua izan zen. Bigarren erdian, Javiren mutilek berean jarraitu eta eskuzabaltasunez lanean aritu eta gero, une batzuetan Zierbenaren ikusmena lausotzea ere lortu zuten. Dena den, Murphyren legeak ez zuten bere txanda pasatzen utzi, eta jokalari eztabaidagarri batean 2-0koa sartu zuten bizkaitarrek. Segidan etorri zen hirugarrena, eta gero atezain jokalariren taktikak fruiturik ematerik ez eta 5-0ko azken emaitzarekin jo zuten amaierako txirrinak. Argi dago zortek ere ez duela ikastolakoan etxean oparirik utzi oraindik aurtengo denboraldian.

Datorren astean Kirol Sport hirugarren sailkatua jasoko du Laskorainek Usabalen. Zaila bezain zirrargarria izango den neurketa batean, taldea bizitzeko ari den une gogorrek direla eta, zaletuen babesa behar-beharrezkoa izango dute. Mailari eusteko aukerak guztiz solidoak dira oraindik eta taldeak ez du bere azken hitza esateko asmorik erakutsi.

## Hilberria



### BERNARDA GOROSTEGI ESNAL

(Mikel Izagirre irakaslearen ama)

Ez nau beldurtzen egusentian arnas zuridun izotzak eguzki eder joan guztian argia baitu bihotzak eta begien mila emegai iraganaren oroitzak

**Samaniego ikastetxea**  
Tolosa, 2012ko martxoaren 20an



### BERNARDA GOROSTEGI ESNAL

andrea

Martxoaren 18an hil zen, 87 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren.

- Goian bego -

Bere senarra: Jose Antonio Izagirre; seme-alabak: Antton eta Izaskun Elizaran, Jose Manuel eta Marian Eceizabarrena, Xabier eta Karmele Legorburu, Mikel eta Ana Arruebarrena; bilobak: Manex, Edurne, Miren, Ekaitz, Maialen, Maddi eta Alex, Ane eta Aitzol; anai-arrebak: Rafael eta Asun; ezkon anai-arrebak: Maria, Jacinta, Jose Mari, Seberri eta Jose, Jesusa; ilobak; lehengusua eta gainerako ahaideak.

Arren eskatzen dizuete otoitz bat haren alde, eta etor zaitzela **GAUR ASTEARTEA** arratsaldeko **ZAZPIETAN** Tolosako **SANTA MARIA** parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Helbidea:** Arzabalza baserria.  
**Oharra:** Gorputz bella Tolosako **FUNERARIA ORIA TANATORIOAN** egongo da, **ASTEARTEA** goizeko **10:45**ak arte.

Tolosa, 2012ko martxoaren 20an



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa.** Gelede mask erakusketa Topic zentroan, ekainaren 10a arte.
- **Tolosa.** AurrezAurre erakusketa, apirilak 14a arte, Aranburu jauregian.

**DEIALDIK**

- **Armezeta.** Odol ateratzeko egingo dituzte, 18:00etatik 20:00etara, kultur etxeko aretoan. Odol emale direnei eta oraindik eman ez dutenei egiten diete deialdia.
- **Tolosa.** Oargi mendi elkarte upategi batera joateko bidaia antolatzen ari da, Vianara, Rioja Vegara, hilaren 24ean. Aurretik mendi ibilaldia egingo dute, tartean Peña Altara (1243 m.) eta La Poblacion (1245 m.) igoz. Bazkaria 35 euro (bodegara bisita eta ardo-kata barne) eta autobusa 15 euro inguru izango da. Izena emateko 20 euro sartu behar dira hilaren 22a baino lehen 3035 0028 11 0281141038 kontu zenbakian.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10, 943 67 24 38.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

**BIHAR**

- **Tolosa.** Olarreaga, A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

**Irudia Belauntza**



**SAN JOSE EGUNA OSPATU DUTE BELAUNTZAN**

Ohiturari jarraituz, San Jose eguna ospatu zuten, atzo, Belauntzan. Ez dute herritarrek askotan izaten San Jose ermitan sartzeko aukera, eta atzokoa izan ohi da une horietako bat, San Jose egunez bertan meza ospatu baitzuten. Elizkizunaren ondoren herriko elkartera

abiatu ziren herritarrek. Kultur jardueretarako baliatzen duten Martintxo baserrian 30 lagun inguru elkartu ziren hamaiketako egitera. Mahaiaren bueltan jarri ziren herritarren artean, jatekoa eta edatekoa tarteko, giro polita nagusitu zen. i.t.

**Agurrak**



**Zorionak!**  
**Antonni Arrubarrena (Lizartza).**  
Gaur 93 urte. Zorionak eta muxu asko seme-alaba, biloba eta birbiloben partetik.

**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● **agurrak**

urtebetetzak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza** bertako egunkaria

**902-82 02 01**  
(Asteegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)  
[leitzaaldea.hitza.info](http://leitzaaldea.hitza.info)

eraman/bidali zure datuak:  
Araba etorbidea 5 behea, atzea • 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Larribidea:	•Jaioteguna:
•Herribidea:	•Herria:
•PK:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

**egin zaituz harpidedun!**

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organiko, Datu Pertsonalak Babesteko, berriki, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago kuxuki, zuzentzeko, ezartzeko eta kontu egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSALDEKO HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Araba etorbidea 5 behea, 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info

**Tolosan etxe adosatua salgal:**  
eguzkitua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

**Interesatuak, deitu**  
**678 267657**  
telefono zenbakia.